BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, KANPOKO ESKAILERA MEKANIKOEN ETA ARRAPALEN MANTENTZE-ZERBITZUA KONTRATATZEKO

AURKIBIDEA

1. XEDEA

2. BETE BEHARREKO PRESTAZIOA

3. MANTENTZE-LANEN DESKRIBAPENA

3.1 3.1 MANTENTZE-LAN PREBENTIBOA
3.2 MANTENTZE-LAN ZUZENTZAILEA
3.3. APARTEKO MANTENTZE-LANA

4. KONTROL-ZENTROA

5. ZERBITZUAREN ANTOLAMENDUA

5.1 ANTOLAMENDUA
- 5.1.1 Langileria
- 5.1.2 Bitarteko teknikoak
- 5.1.3 Ordezko piezak eta suntsigarriak

5.2 . MATXURA-ZERBITZUA

6. SARTUTA DAUDEN LANAK ETA HORNIDURAK ETA SARTUTA EZ DAUDENAK

6.1 ENPRESAREN KONTURAKO LANAK
6.2 UDALAREN KONTURAKO LANAK

7. ZERBITZUAREN KONTROLA ETA FAKTURAZIOA

7.1 ALDIZKAKO INFORMAZIOA
7.2 KONTROLA ETA DISPONIBILITATEA
7.3. FAKTURAZIOA

8. ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREN BESTE OBLIGAZIO BATZUK

8.1. UDALAK ESKATUTAKO LAGUNTZA
8.2. LAN-SEGURTASUNA

9. ESKAILEREN ETA ARRAPALEN EZAUGARRI TEKNIKOAK

9.1 THYSSEN MARKAKO ESKAILERAK ETA ARRAPALAK
9.2 SCHINDLER MARKAKO ESKAILERAK

1. XEDEA

Agiri honen xedea da Eibarko Udalak dituen Thyssen eta Schindler markako kanpoko eskailera mekanikoen eta arrapalen mantentze-zerbitzua kontratatzeko ezaugarri teknikoak zehaztea.

Mantentzearen barruan sartzen dira noranzko biko komunikazio-sistemak, PLCak, SCADAk edo kontrol-sistemak kudeatzeko erabilitako beste edozein sistema.

2. BETE BEHARREKO PRESTAZIOAK

Mantentze-lan Prebentiboaren eta Zuzentzailearen xede izango diren instalazioak 1. Eranskinean zerrendatzen dira eta 2 lotetan daude banatuta: Thyssen markako eskailerak eta arrapalak eta Schindler makako eskailerak.

Eskailera mekanikoen mantentze-lanetan honako prestazioak sartzen dira:

- Etengabeko arreta-zerbitzua eta komunikazioa Mantentze-lanen ekipoekin, eskaileren funtzionamendu-ordutegian, 06:30etik 23:00etara, urteko 365 egunetan (jai-egunak barne). Ordutegi hori goizeko 03:00ak arte luzatuko da, herriko jai-egunetan edo Udalak interesekotzat jotzen dituen gainerako ekitaldietan, hala nola auzoetako jaietan, musika-kontzertuetan, antzerki-jardunaldietan, eta beste edozein ekitalditan, baldin eta eskailerak eta arrapala mekanikoak gauez erabili behar badira.

- Etengabeko kontrola ahalik eta lasterren esku hartzeko, eta eskuzko berrarmatzea, ekitaldiren bat edo matxuraren bat gertatuz gero. Esku-hartzeko epea gehienez ere 2 ordukoa izango da oharra jasotzen denetik.

- Mantentze-lan prebentiboa.

- Mantentze-lan zuzentzailea.

- Mantentze-lan apartekoa.

Mantentze-lanetan egin beharreko egiaztapenetarako, honako dokumentu hauetan adierazitakoa bete beharko da:

- Fabrikatzaileen mantentze-lanen gidaliburua.

- Igogailu eta eskailera mekanikoen UNE-EN 13015:2001+A1 Araua. Mantentze-lanen jarraibideetarako arauak.

Lanak gauzatzen direla kontrolatzeko, udal-bulegoetan honako dokumentu hauek entregatu beharko dira:

- Matxura-abisuen ondoriozko mantentze-lan arrunten albaranak.

- Eskailera bakoitzaren egoeraren hileko txosten zehatzak.

- Eskailera bakoitzaren narriadura-egoeraren txostena, eta, hala badagokio, haren erabilera eta segurtasuna bermatzeko gomendatutako ezohiko jarduerak.

Lizitatzaileek beren gain hartuko dute eskailera mekanikoen egungo egoera, eta gerora ezin izango dute alegatu mantendu beharreko instalazioetan anomalia ezkutuak daudela, zeinak mantentze-kontratuaren barruan konpondu beharko baitira, eta horrek ez dio Udalari kostu gehigarririk eragingo.

Ondorio horietarako, eskaintzak aurkezteko epean, eta hura amaitu baino astebete lehenagora arte, interesa duten enpresek instalazioak ikuskatu ahal izango dituzte, haien kontserbazio-egoera eta funtzionamendua egiaztatuz. Bisitak egiteko hitzorduak helbide honetara posta elektroniko bat bidaliz egingo dira: zerbitzuak@eibar.eus

3. MANTENTZE-LANEN DESKRIBAPENA

Mantentzailearen jarraibideak eta UNE-EN 13015:2001+A1 Araua osatze aldera, mantentzaileak kontratuaren indarraldian zehar egin beharko dituen mantentze-lan nagusienak deskribatzen dira.

3.1. MANTENTZE-LAN PREBENTIBOA

Hilero mantentze-bisitak egingo dira, funtzionamenduko matxurei edo irregulartasunei aurrea hartzeko. Horretarako, nasak eta pasilloak osatzen dituzten elementu eta mekanismo guztiak aztertu eta berrikusiko dira, eta nasen funtzionamendua eta segurtasuna murriztu dezaketen edo matxurak eragin ditzaketen piezak doitu, konpondu edo ordeztuko dira. Arreta berezia jarriko zaie segurtasun-elementu guztiei, hala nola: Makinak, eskudelak, kateak, segurtasun-kontaktuak, abiadura-mugagailua, arrabola, zapalgailuak, plakak, goiko eta beheko transmisioa, motorra, larrialdietako balazta, orraziak, errodadura, kojineteak, koipeztatze automatikoak, eskudelen sinkronismoak, eraginkortasun energetikoaren sistemak, fotozelulak eta hesiak.

Mantentze-lan prebentiborako erabilitako piezek eta gainerako elementuek jatorrizko ordezkoak edo fabrikako ordezkoak izan beharko dute, eta lubrikatzaileek ere eskaileraren fabrikatzaileak zehaztutakoak izan beharko dute.

Mantentze-lan prebentibo huek fabrikako jarraibideei egokituko zaizkie uneoro. Nolanahi ere, hilero koipeztatuko dira horren beharra duten nasa eta pasilloetako elementu guztiak, eskaileren enpresa fabrikatzailearen departamendu teknikoak zehaztutako lubrifikatzaileak erabiliz.

Mantentze-lan prebentiboan egindako esku-hartzeekin txosten bat egingo da, Udaleko zerbitzu teknikoei emango zaiena, hiru laneguneko epean, lanak egin eta hurrengo egunetik zenbatuta. Txostenean honako hauek jasoko dira: matxura-abisuak noiz jaso diren, egindako lanak, lanen ondoren instalazioa nola geratu den, eta instalazioa zer ordutan jarri den martxan. Txosten/parte guztiak enpresa mantentzailearen langileek sinatuko dute eta enpresaren zigilua eramango dute.

Egunero, enpresa adjudikatzaileak, eskailerak martxan jartzen diren orduan, bide publikoan dauden instalazioetatik ibilaldi bat egin beharko du 2 orduko epean, eskaileren funtzionamendu egokia egiaztatzeko eta anomaliarik badago haiek detektatzeko.

3.2 MANTENTZE-LAN ZUZENTZAILEA

Instalazioen edo besteren abisu automatikoei erantzutean eta eskailera mekanikoen funtzionamenduan sortzen diren matxurak konpontzean datza.

Ohiko konponketatzat hartzen dira arrapalen edo eskaileren pieza akastunak konpontzea edo ordeztea; hauexek dira piezak: Abioak, bobinak, zirkuitu inprimatuak, kontroleko kondentsadoreak, kontaktoreak, kontaktu laguntzaileak eta potentziakoak, diodoak, elikatze-iturriak, fusibleak, magnetotermikoak, fusible-euskarria, artezgailuak, erreleak, maniobrako eta berokuntzako erresistentziak, tenporizadoreak, transformadoreak, olioak, motorreko bobinak eta freno-bobinak, kontaktuak, koroak, etengabeko ardatzak, elektrofrenoak, elektrobalbulak, koipeztagailuak, abiadura-mugatzaileak, poleak, ixte-eraztunak, errodamenduak, balbulak, freno-zapatak, motelgailuak, koipeztagailuak, karrerako amaierakoak, fotoetengailua, induktoreak, nibelak, poleak, argiztapena, maniobra eta argiztapeneko maukak, argi-pilotuak, sakagailuak, orrazi-xaflak, eskudelen sarrerak, abio automatikoak, Rudolph zelulak, eskailera-zepilloak, ohartarazteko markak, zeinuak eta piktogramak, birakariak, piñoiak, espekak, eta dokumentu honen 3.3 atalean deskribatutako aparteko esku-hartzeetan sartua ez dagoen beste edozein elementu.

Goian adierazitako piezek adjudikaziodunak eduki behar duen gutxieneko stockaren pate izango dira, eta jatorrizko ordezko piezak edo fabrikako ordezkoak izan beharko dute.

Mantentze-lan zuzentzaileari dagokion laguntza urteko egun guztietan emango da eta matxura 2 orduko epean konpondu beharko da, matxura erregistratzen denetik zenbatuta. Konponketa egin ondoren, mantentzaileak txosten bat egingo du non adieraziko duen zein izan diren matxuraren arrazoiak eta eskailerak zer egunetan eta zer ordutan jarri diren martxan.

Erregistratutako dei automatikorik ez egoteak ez du kontratista salbuesten instalazioa 2 ordutan martxan jartzetik, baldin eta jakiten bada deigailuek ez dutela behar bezala funtzionatzen.

Baldin eta piezaren bat ordeztu behar bada eta ez badago sartuta gutxieneko stockean, edo kasua bada, lizitatzaileak bere proposamenean eskainitakoan, konpontzeko epea 24 ordukoa izango da, matxura jakinarazten denetik. Halako kasuetan, mantentzaileak, matxuraren jakinarazpena jasotzen denetik eta 24 orduko epean, aurretiazko txosten bat entregatuko dio Udaleko zerbitzu teknikoei, adieraziz zein den matxuraren arrazoia, zer jarduera egin behar diren hura konpontzeko eta zer epe aurreikusten den eskailerak berriz ere martxan jartzeko. Eskailera/arrapala geldirik dagoen bitartean, hesi batekin itxi beharko da, eta behar bezala ohartarazi arrapalan/eskaileran bi hizkuntza ofizialetan egongo den dokumentu baten bidez, non adieraziko den zein den matxuraren arrazoia eta zer epetan aurreikusten duten hura konpontzea.

Konponketa amaitu ondoren, kontratistak behin betiko txosten bat aurkeztuko die Udaleko zerbitzu teknikoei, gehienez ere 24 orduko epean, eskailerak martxan jartzen direnetik zenbatuta; txostenean zehaztu egingo du zein izan den matxuraren benetako arrazoia, zer jarduera egin diren eta zer ordutan jarri diren martxan eskailerak.

Irizten zaionean matxuraren konponketa ez dagoela sartuta mantentze-lan prepentiboetan edota zuzentzaileetan, agiri honetan aurreikusitako inguruabarren bat gertatzeagatik, enpresa adjudikatzaileak matxuraren azalpen-txosten bat egingo du, gehienez ere 24 orduko epean, eta bakarrik egingo du aurretiazko konponketa, baldin eta Udalak baimena ematen badu.

3.3. APARTEKO MANTENTZE LANA.

Aparteko jardueratzat hartzen dira eta mantentze-lan prebentibo eta zuzentzaileetatik kanpokotzat 6.2 atalean zehazten diren eskailerako elementuen konponketak.

Elementu horiek ordezteko Udalaren aurretiazko baimena beharko da. Lizitatzaileak aparteko mantentze-lanetarako eskainitako prezioan sartuta daude sortutako hondakinen kudeaketa, eskulana eta beharrezkoak diren gainerako bitarteko laguntzaileak.

Ordeztutako piezek gutxienez 4 urteko berme integrala izango dute. Bermealdia amaitu aurretik ordeztutako pieza arazoak ematen hasten bada, mantentzaileari eskatuko zaio berriz ere pieza ordezteko, bere kontura.

Elementu horiek jatorrizko beste batzuez edo fabrikako beste batzuez ordeztu beharko dira.

Antzemanez gero 6.2 atalean zehaztutako eskailerako elementuen narriadura mantentze-lan prebentibo edota zuzentzaile faltaren eraginez gertatzen dela, mantentzaileari eskatuko zaio hondatutako elementuaren ordezpena egin dezala, kosturik gabe eta lizitazio-prozesuan adierazitako epe berberetan.

3.4 KONTRATUA AMAITU AURREKO MANTENTZE-LANA

Kontratua amaitu aurreko azken bi hilabeteetako epearen barruan, kontratistaren kontura, Ikuskaritza, Kontrol eta Prebentzio erakundeak lizitazioaren xede diren instalazio guzti-guztiak ikuskatu beharko ditu. Ikuskapen hori kontratistaren kontura izango da eta Eibarko Udalak izendatutako langileen aurrean egingo da. Ikuskapen-aktetan akatsak agertzen badira, eta akats horiek indarrean dagoen kontratuaren estalduraren arabera konpon badaitezke, adjudikaziodunak kontratua amaitu baino lehen konpondu beharko ditu, behin betiko bermearekin erantzunez.

4. KONTROL-ZENTROA

Adjudikaziodunak instalazioa monitorizatzeko gai den sistema bat hornitu eta mantendu beharko du lizitazioaren xede diren unitate guztietan, bai mantentzailearentzat berarentzat, bai Eibarko Udaleko zerbitzu teknikoentzat. Sistema horrek instalazioa ekipatuko du eguneko 24 orduetan, denbora errealean gertatzen diren matxuren berri emanez mantentzaileari eta Eibarko Udalari. Kontratuaren adjudikaziodunak ordainduko ditu sistema horri lotutako telekomunikazio-zerbitzuak eta datuak, bai eta horien mantentze-lanak eta konponketa ere.

Halaber, sistema horretan web-atarirako sarbide bat sartu beharko da, honako funtzionalitate hauei lotua:

- Mantentze-lanen jarraipena egiteko web-plataforma edo aplikazioa.
- Eskailerak denbora errealean monitorizatzeko sistema, non ekipoaren egungo egoera ezagutu ahal izango den, haren egoera argi eta garbi identifikatuz (geldialdia matxuragatik, geldialdia mantentze-lan prebentiboagatik, martxan, zain).

- Erabilera-estatistiken kontsulta, zeina pertsonalizatu ahal izango den ordutegi-erabileraren goraldiak identifikatzeko, eta abar.
- Fakturazioa eta hartatik eratorritako datuak (fakturazio-datak, lotutako kontratua)

5. ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREN EZAUGARRIAK

5.1. ZERBITZUAREN ANTOLAMENDUA

Enpresa adjudikaziodunak honako giza baliabideak eta bitarteko tekniko eta suntsigarriak atxiki beharko dizkio kontratuari.

5.1.1.Langileria

- Mantentze-Zerbitzuaren zuzendaria.

Udalaren solaskidea izango da kontratuari dagokionez, eta enpresa adjudikaziodunaren ordezkaritza teknikoa bere gain hartuko du Udalaren aurrean, kontratuak irauten duen bitartean.

- Mantentze-lanen teknikariak

Instalazioak mantentzeko egin beharreko lana, normalean, ekipo txiki baten bidez egingo da. Hala ere, kasu jakin batzuetan, eta egoerak hala eskatzen duenean, ekipo horrek instalazioen mantentze-lanak maiz egiten ez dituzten beste batzuen laguntza izan ahalko du.

5.1.2. Bitarteko teknikoak

Kontratuaren esku jarritako baliabide teknikotzat joko dira mantentze-lanetarako jardueraren laguntza-taldeak.

- Ibilgailuak

Giza ekipoak, erremintak eta mantentze-lanetako ordezko piezak mantendu beharreko makinetara eraginkortasunez eta azkar mugitu ahal izateko:

Egunero enpresa adjudikaziodunak bide publikoan dauden instalazioetatik ibilaldi bat egin beharko du, egon daitezkeen anomaliak detektatzeko.

- Tresnak eta erremintak

Enpresa adjudikaziodunak zerbitzuaren esku jarriko ditu instalazioak bere ardurapean mantentzeko behar diren tresnak, erremintak eta ibilgailu bereziak.

- Lokala

Enpresa kontserbatzaileak, kontratuak irauten duen bitartean eta Eibarko erdigunetik 55 km-ko erradioan, lokal bat izan beharko du gutxienez, telefono bidezko arreta-zerbitzua, stockeko ordezko piezak eta kontratua eraginkortasunez gauzatzeko beharrezko gainerako baliabideak dituena.

5.1.3. Ordezko piezak eta suntsigarriak

Enpresa lizitatzaileek beharrezkoak eta nahikoak diren ordezko piezak izan beharko dituzte, gutxienez baldintza-agiri honen 3.2 klausulan adierazitakoak, ordezko piezarik ez dagoelako funtzionamendu eza saihesteko. Gainera, lizitazio-fasean, zerrenda bat entregatuko da aurrekoez bestelako fabrikako ordezko pieza homologatuekin eta zertifikatuekin eta material suntsigarriarekin, alegia, lizitatzaileak pilatu beharrezkotzat jotzen dituenekin, zerbitzuaren jarraitutasuna ahalbidetzeko, baldintza-agiri honen 7. puntuan adierazitako disponibilitatearekin.

Ordezko piezen eta suntsigarrien zerrenda hori eskaintzaren irismenaren barruan sartuko da eta haren parte ezinbestekotzat entregatu beharko da:

- Adjudikaziodunak/ek zerrenda horretan adierazitako ordezko piezen eta suntsigarrienn stockarekin hasiko du/dute kontratua, eta bere(n) erantzukizuna izango da kontsumitutako ordezko piezak eta suntsigarriak kudeatzea, mantentzea eta eguneratzea, uneoro eskatutako baliabideak betetzen direla ziurtatzeko.
- Adjudikaziodunak/ek biltegiratzeko toki bat izan beharko du/dute, materiala behar bezala kontserbatzeko baldintzak beteko dituena.
- Adjudikazioduna(k) izango da/dira agiri honetan ezarritako epeen barruan konpondu ezin diren matxuren erantzule, stock-zerrendako ordezko piezen faltagatik.
- Kaltea dela-eta ekipoa gelditu behar bada, konponketa egiten den bitartean, enpresa adjudikaziodunak, behin-behinean, ekipamendua martxan jarraitzeko beharrezkoak diren behin-behineko elementuak jarriko ditu.

5.2. MATXUREN ZERBITZUA

Matxuren zerbitzuetarako, enpresa adjudikaziodunak 24 orduko zerbitzu iraunkor bat (jaiegunak barne) izango du, edozein eskailera/arrapalari erantzuteko gaitasuna izango duena, behar besteko segurtasunez. Horretarako, asistentzia iraunkorreko telefono bat eduki beharko du, goian aipatutako inguruabarrak jasoko dituena; halaber, behar adina langile edukiko ditu, beharrezkoa den kualifikazioa izango dutenak, inguruabar horiei erantzuteko, jakinarazten direnetik gehienez 2 orduko epean.

6. SARTUTA DAUDEN LANAK ETA HORNIDURAK ETA SARTUTA EZ DAUDENAK

Piezak ordezteko, jatorrizko ordezko piezak edo fabrikako ordezkoak erabiliko dira.

6.1. ENPRESAREN KONTURAKO LANAK

Enpresaren kontura izango dira honako puntu hauek:

- Agiri honetako 3.1 eta 3.2 puntuetan definitutako mantentze-lan prebentibo eta zuzentzaileetarako beharrezkoak diren piezak konpontzea eta ordeztea, arrapalen eta eskaileren segurtasuna eta funtzionamendu egokia bermatzeko.

- Honako hauek dira mantentze-lan prebentiboaren eta zuzentzailearen barruan sartzen diren piezak: Abioak, bobinak, zirkuitu inprimatuak, kontroleko kondentsadoreak, kontaktoreak, kontaktu laguntzailea eta potentziakoak, diodoak, elikatze-iturriak, fusibleak, magnetotermikoak, fusible-euskarria, artezgailuak, erreleak, maniobrako eta berokuntzako erresistentziak, tenporizadoreak, transformadoreak, olioak, motorreko bobinak eta freno-bobinak, kontaktuak, koroak, etengabeko ardatzak, elektrofrenoak, elektrobalbulak, koipeztagailuak, abiadura-mugatzaileak, poleak, ixte-eraztunak, errodamenduak, balbulak, freno-zapatak, motelgailuak, koipeztagailuak, karrerako amaierakoak, fotoetengailua, induktoreak, nibelak, poleak, argiztapena, maniobra eta argiztapeneko maukak, argi-pilotuak, sakagailuak, orrazi-xaflak, eskudelen sarrerak, abio automatikoak, Rudolph zelulak, eskailera-zepilloak, ohartarazteko markak, zeinuak eta piktogramak, birakariak, piñoiak, espekak, eta dokumentu honen 3.3 atalean deskribatutako aparteko esku-hartzeetan sartua ez dagoen beste edozein elementu.

- Mantentze-lan zuzentzaile eta prebentiboa egiteko lanetan esku hartzen duten pertsonalaren eta bitarteko laguntzaileen kostua.

- Kontrol zentralizatuko zerbitzurako instalatutako ekipoak eta sistemak konpontzea, eguneratzea eta ordeztea.

6.2, UDALAREN KONTURA DIREN LANAK

Honako puntu hauek Eibarko Udalaren kontura izango dira:

- Arduragabekeriagatik, erabilera desegokiagatik edo bandalismoagatik eragindako elementuen konponketak edo ordezpenak, instalazioaren edo haren osagaien modernizazioak, eta Udalak edo edozein mailatako erakunde ofizialek eska ditzaketen esku-hartzeak edo erreformak.

- Igeltserotza, zurgintza eta iturgintzako lanak.

- Higadura jasan duten elementu hauek konpontzea; ordaindu beharreko zenbatekoa kontratuaren adjudikaziodunak bere proposamenean eskainitakoa izango da.

  - Eskudelak
  - Eskailera-mailen kateak
  - Eskailera-mailak
  - Erregulatzaileak
  - Eskudelen kateak

  Elementu bakoitza ordezteko gehieneko epeak, Udalaren baimena jakinarazten denetik kontatzen hasita, honako hauek izango dira:

  - Eskudelak ordeztea: 4 egun lanegun
  - Eskailera-mailen kateak ordeztea: 50 lanegun.
  - Eskailera-mailak ordeztea: 2 lanegun.
  - Erregulagailuak ordeztea: 5 lanegun.
  - Eskudelen kateak ordeztea. 2 lanegun.

Elementu horiek ordezteko Udalaren aurretiazko baimena beharko da.

Ordeztutako elementuek 4 urteko berme integrala izango dute gutxienez. Bermealdia amaitu aurretik ordeztutako pieza arazoak ematen hasten bada, mantentzaileari eskatuko zaio berriz ere pieza ordezteko, bere kontura.

Antzemanez gero eskaileraren ordeztutako elementu horien narriadura mantentze-lan prebentibo edota zuzentzaile faltaren eraginez gertatzen dela, mantentzaileari eskatuko zaio hondatutako elementuaren ordezpena egin dezala, kosturik gabe eta lizitazio-prozesuan adierazitako epe berberetan.

7. ZERBITZUAREN KONTROLA ETA FAKTURAZIOA

7.1 ALDIZKAKO INFORMAZIOA

Mantentze-lanetako zerbitzuburuak ordezkari eta solaskide tekniko gisa jardungo du Udaleko teknikariekin, eta haiek koordinatuko dituzte agindutako mantentze- eta/edo konponketa-lanak. Emandako zerbitzuaren kalitatean antzemandako edozein anomalia zerbitzuburuari jakinaraziko zaio, baita zerbitzuaren kalitate-ikuskapenen emaitzak, zigorrak eta kontratua gauzatzean nabarmendu daitekeen beste edozein inguruabar ere.

Udal-zerbitzu teknikoek aldian-aldian gainbegiratuko dute kontratua, horretarako ezarritako kontrol-sistemaren bidez.

Hala ere, eskailera eta arrapala mekanikoek behar bezala funtzionatzen dutela bermatzeko, bilerak egingo dira hilero mantentze-lanetako zerbitzuburuarekin eta Udaleko zerbitzu teknikoekin. Bilera horietan, txosten bat aurkeztu beharko da paperean eta formatu elektronikoan, instalazioen egoera orokorrari buruz, datu absolutuetan eta ehunekoetan dagoen eskuragarritasunari buruz, eta erabiltzaileen eta matxuren zenbaketari buruz. Dokumentu hori egiazkoa izango da, behar bezala dokumentatuta egongo da, eta fakturatutako hilabetean sortutako matxurei erantzuteko txostenetako/parteetako datuetan eta instalatutako kontrol-sistemetan oinarrituta egongo da.

7.2 KONTROLA ETA DISPONIBILITATEA

Udalak beharrezkoak diren kontrolak eta ikuskapenak egingo ditu, mantentze-lanen eraginkortasuna ezartzeko. Eraginkortasun hori modu objektibo eta konstantean kuantifikatzeko, hileko DISPONIBILITATEAREN kontzeptua ezartzen da. Kontzeptu hori honela definitzen da: eskailera mekaniko edo arrapala baten funtzionamendu-ordu erabilgarrien kopuruaren eta funtzionamendu-ordu teorikoen kopuruaren arteko zatiduraren emaitza.

Disponibilitatea (%) = (ordu erabilgarrien kp / ordu teorikoen kp) * 100

Ordu teorikoen kopurua: 16,5 ordu/eguneko (funtzionamendu-ordutegia: 06,30-23:00). Eskailera adierazitakotik gorako ordutegi batean badago martxan jai-eguna izateagatik, hileko disponibilitatearen kalkuluan denbora hori ere kontuan hartuko da.

Eskailera mekaniko edo arrapala bakoitzaren funtzionamendu-ordu erabilgarrien kalkulua mantentze-lan zuzentzaileko lan-parteetan eta kontrol-sistemako datu-baseetan erregistratutako datuetan oinarrituta ezarriko da. Hileko txostenean adierazitako disponibilitateak, hortaz, bat etorri behar du lan-parteetan adierazitakoarekin.

Ordu erabilgarrien kalkuluan ez dira kontuan hartuko instalazioaren geldialdi-denborak, zerbitzu-orduen parte diren mantentze-lan arruntak egiten ari direnean (betiere agiri honetan adierazitako konponketa- edo mantentze-lanetarako gehieneko denbora-mugarekin), ezta garbiketa eta ikuskapen ofizialak ere, halakorik balego. Aparteko mantentze-lanen kasuan, geldialdi-denborak behar den bezala justifikatu beharko dira, dagokion txosten teknikoaren bidez.

Disponibilitatearen balioa ohiko lan-baldintza batzuetarako ulertzen da, eta ez dira kontuan hartuko, zigorren ondorioetarako, hondamendi meteorologikoen edo ekintza bandalikoen ondorioz sortutako ezohiko egoerak.

Adjudikaziodunak garatutako jarduerak edozein unetan ikuskatu eta kontrolatu ahal izango dituzte Udaleko langile teknikoek.

7.3. FAKTURAZIOA

Fakturazioa hilero egingo da, eta jabetzan titulartasuna aldatu bada edo zerrendatutako aparaturen bati baja ematen bazaio, horien mantentze-lanen zenbatekoa ez da fakturatuko. Halaber, eskailera mekaniko bat geldirik geratzen bada eraberritze-obrengatik, mantentze-lanengatik edo Udalaren premiengatik, eragindako hilabeteetako mantentze-lanen zenbatekoa ez da fakturatuko.

8. KONTRATISTAREN BESTE OBLIGAZIO BATZUK

8.1. UDALAK ESKATUTAKO LAGUNTZA

Lehiaketan parte hartzen duten enpresek bermatu egin behar dute eskaileren edo arrapalen funtzionamenduan arazo larri bat dagoenean fabrikatzaileak bere fabrikatik kalitate-arduradun bat edo/eta fabrikazio-ingeniari bat bidaliko duela arazoari erantzun azkar bat emateko. Era berean, mantentze-lanetako enpresa derrigortuta dago Udalari, idatziz, garrantzizko anomaliak daudela aditzera ematera, eta horrekin batera arazoak konpontzeko jarduera-plana egitera.

Lizitazio-fasean, enpresa eskaintzaileek instalazioak bisitatu beharko dituzte, ikuskapen bat egiteko, eta zer ekiporekin lan egingo duten jakiteko, adjudikaziodun suertatzen badira. Horretarako, Zerbitzu Arloko zerbitzu teknikoekin harremanetan jarri beharko dute, bisita horiek egiteko eguna zehazteko. Bereziki garrantzitsua da enpresa eskaintzaileek eskaileren kontserbazio-egoera eta arrapala eta eskailera mekanikoen kontrol- eta komunikazio-sistemak ezagutzea.

Kontratua gauzatzen hasi eta 2 hilabete igaro ondoren, enpresa adjudikaziodunak eskailera edo arrapala bakoitzaren egoerari buruzko azterlan xehatua aurkeztu beharko du, kontratuan zehar sor daitezkeen aparteko mantentze-premien berri izateko, eta horri buruzko jarduera-plangintza bat proposatzeko.

8.2. LAN-SEGURTASUNA

Lan-arriskuen prebentzioari dagokionez, enpresa adjudikaziodunak Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko indarreko araudian ezarritakoa beteko du (azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa, eta hura garatzeko gainerako berariazko araudia, bereziki urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretua, enpresa-jardueren koordinazioari buruzko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duena).

Adjudikaziodunak behar bezala aseguratuta eduki beharko du bere kargu duen langileria guztia, Lanaren Zuzenbideari eta Gizarte Segurantzari buruzko araudiaren arabera.

Enpresa adjudikaziodunak beharrezkoak diren babes indibidualeko eta kolektiboko ekipamendu guztiak emango dizkie bere langileei, beren langileen segurtasuna bermatzeko haien jardueraren ondorioz sor daitezkeen arriskuen aurrean.

Enpresa adjudikaziodunak zorrotz bete beharko ditu laneko Segurtasun- eta Higiene-arloan indarrean dauden xedapenak, bai eta beharrezkoak diren zerbitzu medikoak ere.

9. ESKAILEREN ETA ARRAPALEN EZAUGARRI TEKNIKOAK

9.1 THYSSEN MARKAKO ESKAILERAK ETA ARRAPALAK

9.1.1 Ezaugarri tekniko orokorrak: Thyssen eskailerak

Eskailera mekanikoek, batetik, ezaugarri tekniko orokorrak dituzte, guztientzat komunak, eta, bestetik, eskailera bakoitzaren ezaugarri tekniko bereziak, instalatutako eskailera-ereduari lotuak, bai eta gainditzen duten desnibelari eta eskailera-zabalerari lotuak ere. Jarraian ezaugarriak zehazten dira.

Lizitatzaileek baldintza-agiri honetako informazioa osatu beharra ikusten badute, Udaleko zerbitzu teknikoei eskatu beharko diete.

Abiadura	0,50 m/sg.
Zokaloa	Altzairu herdoilgaitzezko xafla
Energia-aurrezpena	Maiztasun-erregulatzailearen bidez eta Stop & Go sistemen bidez
Babeseko termostatoa	Abio-sistema automatikoa giro-tenperaturaren arabera (izotzaren aurkako gailua)
Pertsonak detektatzea	Rudolph erako zelula fotoelektrikoak
Etengailuak	Mikrokontrola zokaloetan / Giltzaxka geldialdia ahalbidetzeko Rudolph sistemarekin / Tokiko/urrutiko kontroleko giltzaxka beheko zokalo-estalkian
Martxaren noranzkoa	Alderantzizkatu daiteke nahierara
Eragintza	Gurpil zuzenen engranajearen bidez
Eskudelak	Neoprenoa zuntz sintetikozko olanekin
Bastidorea	Altzairuzko profilak, olioarekiko iragazgaitza den hondoarekin, bibrazioen aurkako euskarrien gainean muntatuta, Epoxi babes-pinturarekin
Kateak	Koipeztatze-sistema zentralizatu automatizatua duten kateak
Segurtasunak	Luzatzearen edo eskailera-mailen kateak haustearen aurka / Martxaren noranzkoa alderantzikatzearen aurka / Eskailera-mailen eta orrazien artean / Eskailera-mailak eta haien arrabolak hautsi edo desitxuratzearen aurka / Motorraren gailu termikoa / Abiadura areagotzeagatik / Eskudelaren sarreran eskua ez harrapatzeagatik/ Eskudelen sinkronismoak.
Indar-tentsioa	3x400 – 500 Hz
Isolamendu elektrikoa	IP 55
Teleaginte-sistema	Bi noranzkoko komunikazio-sistema digitalez hornitutako eskailera, Kontrol-Zentrotik gainbegiratzekpo eta teleagintzeko. Eskailera bakoitzak PLC bat dauka komunikazio digitalekin (Modem 1 eskailerako)

9.1.2 Ezaugarri tekniko orokorrak: Thyssen arrapalak

Kalean jarritako 3 arrapala mekanikoek honako banaketa dute:

- Bi (2) arrapala mekaniko San Kristobal kalean.
- Arrapala mekaniko bat (1) Jose A. Iturrioz kalean.

Arrapalen ezaugarri orokorrak:

Martxaren noranzkoa	Alderantzizkatu daiteke nahierara
Eragintza	Engranaje konikoen errendimendu handiko erreduktore baten bidez eta DUPLEX katezko transmisioz; akoplamendu elastikoa ere badauka eta zerbitzu-frenoa. Doitasunezko arrabola-kateak.
Bastidorea	Altzairuzko profilekoa, olioarekiko iragazgaitza den hondoarekin, bibrazioen aurkako euskarrien gainean muntatuta.
Etengailuak	Giltzaxkaz abiaraztekoa, gelditzeko eta larrialdietarako bi sakagailu ditu
Segurtasunak	Luzatzearen edo eskailera-mailen kateak haustearen aurka / Martxaren noranzkoa alderantzikatzearen aurka / Eskailera-mailen eta orrazien artean / Eskailera-mailak eta haien arrabolak hautsi edo desitxuratzearen aurka / Motorraren gailu termikoa. Abiadura handitzeagatik. Eskudelaren sarreran eskua ez harrapatzeagatik. Zuloak irekitzeko segurtasuna. Zuloen estalkietarako morroiloa. Mikrokontaktuak zokaloetan.
Estrak kanpoan egoteagatik	Hustubideak beheko buruan jarriak. Olioaren banatzailea. Kanpoko pintura, epoxi motatakoa egiturarako / IP65 motorrerako babesa / altzairu herdoilgaitzezko kanpoko torlojuak. Paletak errodamendu estankoekin. Eskudelaren irristailua altzairu herdoilgaitzezkoa. Kondukzio elektrikoak eta mikroetengailuak IP65 babesarekin. Kate guztien babesa.
Energia-aurrezpena	Maiztasun-erregulatzailea / Eskailera erabiltzaileak ez daudenean abiadura motelean funtzionatzeko gailua.
Argiztapena	Eskudelaren azpian
Diagnostiko-bistaratzailea	Pasilloa geratzearen arrazoia adieraziko du, hari lotutako mezuekin; eta balioko du, halaber, pasilloa kontrolatzeko eginkizunetarako.
Pertsonak detektatzeko sistemak	Unitateak igorle-hartzaile fotozelulen bikote batzuk ditu, eskailera-mailen/paleten bandaren albo banatan, hesi fotoelektriko bat sortzen dutenak pertsonen presentzia detektatzeko.
Berme irristariak	Zokaloen gaineko eta kanpoko profilak altzairu herdolgaitzezkoak dira, AISI 316 kalitatezkoak.
Profilak	Zokaloen gaineko eta kanpoko profilak altzairu herdolgaitzezkoak dira, AISI 316 kalitatezkoak.
komunikazioak	PLC komunikazio-txartelarekin eskailerak komunikazio-sarean integratzeko (ez du sarea barne hartzen), zehaztu beharreko protokoloarekin.
Kanpoko instalazio publikoko segurtasunak	Mikrokontaktuak zokaloetan. Zuloak irekitzeko segurtasuna. Gelditzeko giltzaxka. Tokiko giltzaxka/urrutiko giltzaxka. Morroiloa.
Klima muturrekoaren instalazioa	Funtzionamendu-kontrolerako termostatoa: gailu honen bidez eskailerak martxan jartzen dira tenperatura baxuekin eta ez da izotzik sortzen.
Trantsizio-kurba	goialdean
Abiadura	0,5 m/sg
Ahalmena	6.750 Pertsona/orduko
Eskudelak	Kautxoa eta zuntz sintetikoa kolore beltzean.
Kanpoko estaldura	Bi alboko eta hondoa AISI 316 altzairu herdoilgaitzean.
Zokaloa	AISI 316 altzairu herdoilgaitza.

9.1.3. THYSSEN ESKAILEREN ETA ARRAPALEN EZAUGARRI TEKNIKO BEREZIAK

zk.	KOKAPENA	MODELOA/MOTA	DESNIBELA (mm)	HARGUNE ELEKTRIKOA	POTENTZIA (KW)	INKLINAZIO-ANGELUA	ESKAILERA-MAILAREN ZABALERA ERABILGARRIA (mm)	BALAUSTRADA	INSTALAZIOAREN DATA
1	Untzaga 1-	Velino Xtra Robust FTX22	5.395,00	3X400 V+N-50 Hz	9	30º	1.000	Kristala eta altzairu herdoilgaitza	Aben-14
2	Untzaga 2-	Velino Xtra Robust FTX22FT-732-GLW	4.520,00	3X400 V+N-50 Hz	9	30º	1.000	Kristala eta altzairu herdoilgaitza	Dic-14
3	Txaktxazelai 1	Velino Xtra Robust FTX22FT	5.030,00	3x400 V-50 Hz	9	35º	1.000	Kristala eta altzairu herdoilgaitza	Dic-14
4	Txaktxazelai 2	Velino Xtra Robust FTX22FT	10.620,00	3x400 V-50 Hz	16.5	30º	1.000	Kristala eta altzairu herdoilgaitza	Dic-14
5	Armagin - Urki 1	FT-732-GLW	6.160,00	3x400 V-50 Hz	10,5	35º	1.000	Altzairu herdoilgaitza	Dic-01
6	Armagin - Urki 2	FT-732-GLW	5.920,00	3x400 V-50 Hz	10,5	35º	1.000	Altzairu herdoilgaitza	Dic-01
7	Sostoatarren	FT-732-GLW	10.525,00	3x400 V-50 Hz	2 x 9	30º	1.000	Altzairu herdoilgaitza	Ekain-02
8	Zezenbide	FT-732-GLW	4.930,00	3x400 V-50 Hz	9	30º	1.000	Altzairu herdoilgaitza	Ekain-02
9	Legarregain 1	AVANTE	7.230,00	3x400 V-50 Hz	12	30º	1.000	Kristala	Aben-02
10	Legarregain 2	AVANTE	3.720,00	3x400 V-50 Hz	7,5	35º	1.000	Kristala	Aben-02
11	Legarregain 3	AVANTE	7.820,00	3x400 V-50 Hz	10,5	30º	800	Kristala	Aben-02
12	Legarregain 4	AVANTE	7.890,00	3x400 V-50 Hz	10,5	30º	800	Kristala	Aben-02
13	Muzategi - Jardiñeta 1	AVANTE	4.640,00	3x400 V-50 Hz	7,5	35º	1.000	Kristala eta altzairu herdoilgaitza	Mait-03
14	Muzategi - Jardiñeta 2	AVANTE	2.940,00	3x400 V-50 Hz	5,5	35º	1.000	Kristala eta altzairu herdoilgaitza	Mait-03
15	Muzategi - Jardiñeta 3	AVANTE	6.000,00	3x400 V-50 Hz	9,5	35º	1.000	Kristala eta altzairu herdoilgaitza	Mait-03

zk.	KOKAPENA	MODELOA/MOTA	DESNIBELA (mm)	HARGUNE ELEKTRIKOA	POTENTZIA (KW)	INKLINAZIO-ANGELUA	ESKAILERA -MAILAREN ZABALERA ERABILGARRIA (mm)	BALAUSTRADA	INSTALAZIOAREN DATA
16	Tiburtzio Anitua-Bustindui 1	AVANTE	6.000,00	3x400 V-50 Hz	9,5	35º	1.000	Kristala	Ekai-03
17	Tiburtzio Anitua-Bustindui 2	AVANTE	4.50,00	3x400 V-50 Hz	7,5	35º	1.000	Kristala	Ekain-03
18	Tiburtzio Anitua-Bustindui 3	AVANTE	5.150,00	3X380 V+N-50 Hz	9,5	35º	1.000	Kristala	Ekai-03
19	Urki Kurutzekua	TNE 2022 W-A10	4.000,00	3X380 V+N-50 Hz	6	35º	1.000	Kristala	Urt-07
20	San Kristobal 1 (ARRAPALA)	ORIONOCO XTRA 4EK	5.470,00	3x400 V-50 Hz	9	10º	800	Kristala	Apir-07
21	San Kristobal 2 (ARRAPALA)	ORIONOCO XTRA 4EK	5.150,00	3x400 V-50 Hz	9	12º	800	Kristala	Apir-07
22	Errebal – Muzategi 1	VELINO XTRA	6.700,00	3x400 V+N-50Hz	10,5	30º	1.000	Kristala	Urt-08
23	Errebal – Muzategi 2	VELINO XTRA	4.380,00	3x400 V+N-50Hz	7,5	35º	1.000	Kristala	Urt-08
24	Ego Gain- Isasi 1	VELINO XTRA	5.860,00	3x400 V+N-50Hz	10,5	30º	1.000	Kristala	Urt-09
25	Ego Gain- Isasi 2	VELINO XTRA	5.860,00	3x400 V+N-50Hz	10,5	30º	1.000	Kristala	Urt-09
26	Jose A.Iturrioz (ARRAPALA)	ORINOCO FSX82	4.478,00	3x400 V+N-50Hz	9	12º	1.000	Kristala	Urr-10
27	Jardiñeta Institutua 1	VELINO XTRA	7.040,00	3x400 V+N-50Hz	12	30º	1.000	Kristala	Apir-11
28	Jardiñeta Institutua 2	VELINO XTRA	4.390,00	3x400 V+N-50Hz	7,5	35º	800	Kristala	Apir-11
29	Jardiñeta Institutua 3	VELINO XTRA	4.350,00	3x400 V+N-50Hz	7,5	35º	800	Kristala	Apir-11
30	Jardiñeta Institutua 4	VELINO XTRA	7.660,00	3x400 V+N-50Hz	12	30º	1.000	Kristala	Apir-11
31	J.A.Moguel 1	VELINO XTRA	4.439,00	3x400 V+N-50Hz	7,5	35º	1.000	Kristala	Apir-12
32	J.A.Moguel 2	VELINO XTRA	3.320,00	3x400 V+N-50Hz	6	35º	1.000	Kristala	Apir-12
33	J.A.Moguel 3	VELINO XTRA	2.551,00	3x400 V+N-50Hz	6	35º	1.000	Kristala	Apir-12

9.2. SCHINDLER MARKAKO ESKAILERAK.

9.2.1 EZAUGARRI TEKNIKO OROKORRAK: SCHINDLER ESKAILERAK

10 kanpoko eskailera daude herrian Schindler markakoak.

Eskailera mekanikoek, batetik, ezaugarri tekniko orokorrak dituzte, guztientzat komunak, eta, bestetik, eskailera bakoitzaren ezaugarri tekniko bereziak, instalatutako eskailera-ereduari lotuak, bai eta gainditzen duten desnibelari eta eskailera-zabalerari lotuak ere. Jarraian ezaugarriak zehazten dira.
Lizitatzaileek baldintza-agiri honetako informazioa osatu beharra ikusten badute, Udaleko zerbitzu teknikoei eskatu beharko diete.

Abiadura	0,50 m/sg
Zokaloa	Altzairu herdoilgaitzezko xafla
Energia-aurrezpena	Maiztasun-erregulatzailearen bidez eta Stop & Go sistemen bidez
Babeseko termostatoa	Abio-sistema automatikoa giro-tenperaturaren arabera (izotzaren aurkako gailua)
Pertsonak detektatzea	Rudolph erako zelula fotoelektrikoak
Etengailuak	Mikrokontrola zokaloetan / giltzaxka geldialdia ahalbidetzeko Rudolph sistemarekin /tokiko/urrutiko kontroleko giltzaxka beheko zokalo-estalkian
Martxaren noranzkoa	Alderantzizkatu daiteke nahierara
Eragintza	Gurpil zuzenen engranajearen bidez
Eskudelak	Neoprenoa zuntz sintetikoko olanekin
Bastidorea	Altzairuzko profilak, olioarekiko iragazgaitza den hondoarekin, bibrazioen aurkako euskarrien gainean muntatuta, Epoxi babes-pinturarekin
Kateak	Koipeztatze-sistema zentralizatu automatizatua duten kateak
Segurtasunak	Luzatzearen edo eskailera-mailen kateak haustearen aurka / Martxaren noranzkoa alderantzikatzearen aurka / Eskailera-mailen eta orrazien artean / Eskailera-mailak eta haien arrabolak hautsi edo desitxuratzearen aurka / Motorraren gailu termikoa / Abiadura areagotzeagatik / Eskudelaren sarreran eskua harrapatzeagatik / Kontrol-kontaktuak kate garraiatzailea igortzeko orga tenkagailuan / Kontaktua goialdeko eta behealdeko orrazi-euskarrien plaketan, egokitzapen bertikal eta horizontalekoak / Eskudelen sarreren kontaktuak / Kate garraiatzailearen/eskailera-mailen kontaktuak / Mugimenduaren kontaktua / Pertsonen presentzia detektatzeko kontaktuak / Abiaduraren eta azpiabiaduraren kontaktua / Martxaren noranzkoa alderantzizkatzeko kontrola / Giltza-etengailuaren zero posizioaren kontrola / Eskudelaren sinkronismoaren kontrola / Kate/eskailera-mailen hondoratzearen kontrola / Zokaloen zepilloak / Motorraren babesa / Konduktore hotzaren bidezko babesa / Frenoaren kontrola / Xaflak babesgarriak goian-behean / kontraerrailak behean / Piktogramak
Indar-tentsioa	3x400 -50 Hz
Isolamendu elektrikoa	IP 55
Teleaginte-sistema	Bi noranzkoko komunikazio-sistema digitalez hornitutako eskailera, Kontrol-Zentrotik gainbegiratzeko eta teleagintzeko. Eskailera bakoitzak PLC bat dauka komunikazio digitalekin

9.2.2. ESKAILERAK: SCHINDLER ESKAILEREN EZAUGARRI TEKNIKO ESPEZIFIKOAK

zk.	KOKAPENA	MODELOA/MOTA	DESNIBELA (mm)	HARGUNE ELEKTRIKOA	POTENTZIA (KW)	INKLINAZIO-ANGELUA	ESKAILERA-MAILAREN ZABALERA ERABILGARRIA (mm)	BALAUSTRADA	INSTALAZIOAREN DATA
1	Bustindui - Asola Igartza 1	9300AE-10FN-30-100-M-W	7.010,00	3x400 V-50 Hz	11	30º	1.000	Kristala eta altzairu herdoilgaitza	Urt-05
2	Bustindui - Asola Igartza 2	9300AE-10FN-30-100-K-W	6.000,00	3x400 V-50 Hz	11	35º	1.000	Kristala	Urt-05
3	Bustindui - Asola Igartza 3	9300AE-10FN-30-100-M-W	7.700,00	3x400 V-50 Hz	11	30º	1.000	Kristala	Urt-05
4	Urki - J.A.Iturrioz	9300AE-10FN-30-100- K-C	6.500,00	3x400 V-50 Hz	11	35º	1.000	Kristala	Urt-06
5	J.A.Gisasola - Romualdo Galdós	9300AE-10FN-30-100- K-C	4.400,00	3x400 V-50 Hz	7,5	35º	1.000	Kristala eta altzairu herdoilgaitza	Urt-06
6	Romualdo Galdós - Santaiñes 1	9300AE-10FN-30-100- K-C	1.850,00	3x400 V-50 Hz	5,5	35º	1.000	Kristala	Urt-06
7	Romualdo Galdós - Santaiñes 2	9300AE-10FN-30-100- K-C	2.510,00	3x400 V-50 Hz	5,5	35º	1.000	Kristala	Urt-06
8	Romualdo Galdós - Santaiñes 3	9300AE-10FN-30-100-K-C	2.600,00	3x400 V-50 Hz	5,5	35º	1.000	Kristala	Urt-06
9	Gisasola - Zezenbide 1	9300AE-10FN-30-100-K-W	2.570,00	3x400 V + N -50 Hz	5,5	35º	1.000	Kristala	Ekain-11
10	Gisasola - Zezenbide 2	9300AE-10FN-30-100-K-W	4.160,00	3x400 V + N -50 Hz	7,5	35º	1.000	Kristala	Ekain-11

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE MANTENIMIENTO DE ESCALERAS MECÁNICAS Y RAMPAS DE INTEMPERIE

ÍNDICE

1. OBJETO

2. PRESTACIÓN A CUMPLIMENTAR

3. DESCRIPCIÓN DE LOS MANTENIMIENTOS

3.1 MANTENIMIENTO PREVENTIVO
3.2 MANTENIMIENTO CORRECTIVO
3.3 MANTENIMIENTO EXTRAORDINARIO

4. CENTRO DE CONTROL

5. ORGANIZACIÓN DEL SERVICIO

5.1 ORGANIZACIÓN
5.1.1 Personal
5.1.2 Medios técnicos
5.1.3 Repuestos y fungibles

5.2 SERVICIO DE AVERÍA

6. TRABAJOS Y SUMINISTROS INCLUIDOS Y EXCLUIDOS

6.1 TRABAJOS POR CUENTA DE LA EMPRESA
6.2 TRABAJOS POR CUENTA DEL AYUNTAMIENTO

7. CONTROL Y FACTURACIÓN DEL SERVICIO

7.1. INFORMACIÓN PERIÓDICA
7.2. CONTROL Y DISPONIBILIDAD
7.3. FACTURACIÓN

8. OTRAS OBLIGACIONES DE LA EMPRESA ADJUDICATARIA

8.1. ASISTENCIA SOLICITADA POR EL AYUNTAMIENTO
8.2. SEGURIDAD LABORAL

9. CARACTERÍSTICAS TÉCNICAS DE LAS ESCALERAS Y RAMPAS

9.1 ESCALERAS Y RAMPAS MARCA THYSSEN
9.2 ESCALERAS MARCA SCHINDLER

1. OBJETO

El presente pliego tiene por objeto definir las características técnicas para la prestación del servicio de mantenimiento de las escaleras mecánicas y rampas de intemperie de las marcas Thyssen y Schindler que el Ayuntamiento de Eibar tiene instaladas.

Se incluyen dentro del mantenimiento los sistemas de comunicación bidireccional, PLCs, SCADAs o cualquier otro sistema utilizado para la gestión de los sistemas de control.

2. PRESTACIONES A CUMPLIMENTAR

Las instalaciones que serán objeto del Mantenimiento Preventivo y Correctivo se relacionan en el Anexo 1 y están repartidas en 2 lotes: Escaleras y rampas marca Thyssen y escaleras marca Schindler.

En el mantenimiento de las escaleras mecánicas se incluyen las siguientes prestaciones:

- Servicio de atención permanente y comunicación con los Equipos de Mantenimiento en el horario de funcionamiento de las escaleras, de 06:30 a 23:00 durante los 365 días del años (festivos incluidos). Este horario se ampliará hasta las 03:00 de la madrugada por motivos de las fiestas patronales o demás eventos que el Ayuntamiento pueda considerar como de interés común, tales como fiestas de barrios, conciertos musicales, jornadas de teatro, y cualquier otro evento celebrado que requiera de un uso nocturno de las escaleras y rampas mecánicas.

- Control permanente para intervención en el plazo más breve posible y rearme manual en caso de evento y/o avería. El plazo para la intervención será como máximo de 2 horas desde la recepción del aviso.

- El mantenimiento preventivo.

- El mantenimiento correctivo.

- El mantenimiento extraordinario.

Para las comprobaciones a realizar en tareas de mantenimiento, se deberá cumplir con lo indicado en los siguientes documentos:

- Manual de instrucciones de mantenimiento de los fabricantes.

- Norma UNE-EN 13015:2001+A1 de mantenimiento de ascensores y escaleras mecánicas. Reglas para instrucciones de mantenimiento.

